

BALSA BAT ETA BOTILA BAT AGERTU DIRA ARROXELA ALDEAN, BILATZEN ARITUZIREN EREMUTIK 90 BAT MILLARA

Aurkitu dituzte Pasaiako 'Marero' arrantzontziaren aztarna batzuk

■ Okeanos arraantzontzi frantsesak asteartean aurkitu zituen aztarnak, baino atzo arte ez zuten baieztatu Marero-renak ote ziren

■ Sables d`Olonneko itsas kapitania daude aztarnok, eta Pasaiara ekartzeko ardura Manul Chaves ontziak hartu du

■ Kofradiako lehendakariaren arabera, orain errazago izango d marinelen senideek kalte-ordainak kobratzea

Arantxa Iraola/ Pasai San Pedro

PASAIKO Arrantzaleen kofradiako leheridakari Jaime Tejedorrek, atzo arratsaldean, harrera egin zien kaze tariei kofradian bertan, eta azken asteotan sarri askotan itxarondako albistea eman zuen: «Baltsa bat agertu da». Baltsa, noski, Marero itsasontziarena dela esan zuen, hain zuzen ere duela, aste batzuk arrantzan ari zela desa-gertutako ontziarena. «Atzo ilunabarre-rako zerbaiten aztarnak bagenituen», esan zuen Jaime Tejedorrek, baina atzo arte ez zutela nahi izan ezer ere baieztatu, agertutako aztarnak Marerorenak ote ziren zehatzmehatz argitu nahi baitzuten.

Tejedorrek ditza eman zuenez, Okeanos arrantzontzi frantsesak aurkitu zuen baltsa, eta ez baltsa bakarrik, baita bertako botila berezi bat ere. Bi objektu horien zerbaitak bat datoz Marerorekin, eta horregatik erabaki zuten atzo albistea zabaltzea. Jakinarazi zuten, halaber, aurkikuritzak n'on izan den. «Arroxelako iparraldean aurkitu dituzte, Sables d'Olonnetik gertu. Bilaketa lanak egiten, arituz ginen tokitik 90 bat miliara dago toki hori», zehaztu zuen, «kostatik 20 bat miliara».

Aurkitutako baltsa hamabi bat lagunentzako modukoa dela esan zuen atzo Jaime Tejedorrek, eta seguraski oritzi urperatzearekin bat puztuko zela. «Aurkikuritzak honek, gainera, argi utzi du baltsak solte zoazela», ckarri zuen atzo gogora Pasaiako Kofradiako leheridakariak. Izan ere, hala agintzen dute segurtasun arauak, eta Marero-k arau hori bete ez zuela dioten informazio batzuk agertu dira egunotan hedabideetan. Horien jarduna gezurra dela esan zuen atzo Jaime Tejedorrek, «oritzi arduraduna oso gizon zorrotza baitzuzen segurtasun kontuetan».



EDURNE KOCH

Jaime Tejedorrek Marero-ren aztarnak non aurkitu diren azaldu zuen atzo.

«Luma bat itsaso zabalean»

Abenduaren 17tik falta dira etxean Marero itsas oritzioko zortzi marinela. Izan ere, halako egunez abiatu ziren.

Itsaso zabalera egun batzuk arrantzan eman eta Egube, rrietarako etxera itzultzeko asmoz. Abenduaren 2'tetik kezka da nagusi, ordea, Pasaian, e gun hartan haie-

kin harremanetan jartzeko saioak arituzak izan baitziren. Kezkaturik ekaitz latza jazo baitzen, berehala egin zuten larrialdi abisua haien kideek eta bilaketa lanak

hasi ziren. Alferrikakoak izan ziren, ordea -Tejedorren arabera, ez da harrizkoa, halako ontzi bat «luma bat bihur baitaiteke itsaso zabalean», eta hondoratu zen eremutik oso urrutira eraman baitezake. Horregatik, joan den igandean bilaketa lanak apaltzea erabaki zuten. Eta senitartekoek kalte-ordainak jasotzeko urratsak abian jartzeko unea zela esan zuten.

Egunotan egindako aurkikuntzak hala ere, senitartekoek egoera erraztu dezakeela esan zuen atzo Tejedorrek. «Honek, aseguru etxeak hondamendia egon dela onartze-ram-ango ditu», azaldu zuen, eta hala legearen itzala baztertzeko aukera handiagoak izango dituztela, haren arabera 2 urte igaro behar izaten baitute desagertutako ontzia urperatu zela esateko eta bost urte desagertutako marinela hilda daudela onartzeko. Ondorioz, kalte-ordainak kobratzen hasia da maiz.

«Hau da errealitate gordina»

■ AURKIKUNTZA hatien berri aurrena Marero-ko senitartekoek eman ziela azaldu zuen atzo Jaime Tejedorrek. «Banan-banan deitu diet arrantzaleen senitarteko guztiei», esan zuen.

Abisua eman aurretik aztarna horiek Marero-renak zirela zitiir baieztatzen ofiziala lortzeko, gainera, hainbat arazo izan zituzten saiaturik, la zehatu zuen atzo Jaime Tejedorrek, albiste latza

baitzen eta inondik inora ere akats edo gaizkiulerturik ez baitute merezi oso une larriak igarotzen ari diren andragizon horiek guztiek.

Jada aztarnaren batzuk agertzea nolabait ere baiko-rra dela esan zuen, hala ere, Jaime Tejedorrek. «Hala, gertatutako zorigaitzean sinesten has daitezke», zehaztu zuen. Izan ere, errealitate ilun horren aurrean oraindik ere hainbat senitar-

teko itsu antzean zebiltzala esan zuen Jaime Tejedorrek. «Atzo bertan senidetako batek Zi0en ezetz, ez zela egia». Tragediaren aurrean begiak zabaldu eta hura onartzeko garaia dela esan zuen, ordea, atzo Jaime Tejedorrek. «Hau da errealitatea gordina».

Ahal dela Marero' arrantzontziaren aztarnagehiago aurkitzeko ahalegina egin behar dela ere zehaztu zuen. «Horren

ardura Manuel Chaves oritziak hartu du», zehaztu zuen. Aurkikuritzak J azo diren tokira joan eta oritzi horrek inguru hura guzua arakatu dutela esan zuen. Ondoren, bilaketa prozesu horren emaitzekin eta jada aurkitutako aztarnekin Sables d'Olonneko itsas kapitania daude gordeta -Pasaiarako bidea hartuko dute, hura ere baitute aztarna horiek jatorri eta abiapuntu.